

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO



**Mihura.** Urtearen amaierarekin batera neguko solstizioa ospatzen dugu, urteko egunik motzena eta gaurik luzeena izaki, hortik aurrera eguna luzatzen hasi eta sasoi berria badatorrela, alegia. Ospakizun hau, egungo astakeria kontsumistara iritsi aurretik era askotara burutu izan da. Natura, bizirik eusten gaituen ingurumena, beti izan da omendua. Egungo izei arrotzaren aurretik mihura xelebrea (*Viscum album*) gurtu izan da. Landare hau beste zuhaitzen gainean, haien izerdia zurrupatu eta lapurtuz bizi da. Hernaniko Alkorta harategian, eguberritako erakusleihoan aldameneko urdaiazpikoak ez al ditu harrapatuko...

## 130

Ziraunak (*Anguis fragilis*) mantso mugitzen diren jakiak ehizatzen ditu: dietaren %80a barraskilo, bare eta zizarek osatzen du. Landarezaleok lagun dugu barraskilo eta bare janez, zizare-janean aldiz? Sugetarra badirudi ere sugandila eta muskerren senitartekoa da, hankak ia galduak dituen sauroa. 50 zentimetrora arte luzatu eta 54 urtera arte bizi omen daiteke. Urrutira gabe bizitzen da, katuen mugarrien barruan; 1985ean Anton Stumpelek argitaratu zuenez, Herbeheretan, markatutako ziraun bat, bi urtetan, bere bizigunetik gehienez ere 130 metro urrutiratzen zela neurtu zuen eta herpetologiaren historiara igaro da.

## Gonagorri soro

KERMES KUKURRUTXA bizkarroiak ematen dio izen zientifikoa bazkatzen duen abaritzari (*Quercus coccifera*). Eta betiko izenean jaso bazuten ez zen txantxetako apopiloa izango. Berriketa txantxarra ez den horrek istorio polita eranstean dio Udalaizten aurkitutako Gipuzkoako lehen abaritzari. Landarearen itzala, izerdia lapurtzen dion intsektutxoarena.

Kermes izena pertsierako *qirmiz* hitzetik dator eta *qirmezi* edo karmin-kolore gorrimin bizia adierazten du. Erditzeko punttuan diren Kermes kukurrutxaren (*Kermes vermilio*) emeak ehortz daigai gorri ezin hobea lortzen da, nonbait. Gorri min bizia kolore nekeza, lortzen zailenetakoa izan da. Horrexegatik errege, zesar, enperadore, artzapezpiku eta goreneko jendilajearen adierazgarria izan da; eta ustezko gorentasunen ikurren tankean bekaizkeriaren eta harropuzkeriaren ufada. Gipuzkoako abariztitik urrutira gabe, "Gonagorri soro" izena duen lur saila ezagutzen dut. Etxekok diotenez, gona gorri bat izan ezean ezin bizi zen alabaren gutizia asetze aldera, aitik trukean emandako soroa da.

Feniziarrek itsas barraskilo batetik lortzen zuten tindagai gorria zilarraren pisura saltzen omen zen. Bere boterearen erakusle, Kleopatra (69-30 K.a.) zilarrezko arraunak eta bela edo haize-oihal gorri minak zituen ontzian ibiltzen omen zen hara eta hona. Zapata gorriak janzen ote zituen? Ezpainak bai, gorritzen zituen, baina kukurrutxaren zukuaz egindako lapitzaz... Gaur egun ere halaxe giten dira ezpain-lapitzak, kukurrutxa odolez.

Barraskiloa garestitxo eta abaritzaren kukurrutxa honek hartzen zuen haren txanda. Erromako zergak ordaintzeko, hango senatarien jantziak gorritzeko erabiltzen ziren kukurrutxa-ore gurdikadak bidaltzen zituzten Hispania menperatutik.

Abaritza, *Quercus coccifera*.



Gerora Kermes kukurrutxaren tokia espainolek zanpatutako Ameriketako topatu zuten beste kukurrutxa batek hartu zuen, kaktus baten kukurrutxak.